



SORTZAILEAK: INSTAGRAM

20. Txostena
2021eko maiatza

SORTZAILEAK

Ikusiker Panela osatzen duten UPV/EHUko eta UPNAko ikasleei Instagramen sortzen dituzten edukiei buruz galdetu diegu, zehazki. Txosten honetan datu horiek jasotzen dira.

1. Ohar metodologikoak


Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkorren eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak.

Txosten honetan aurkitzen dira 2021eko maiatzaren 3tik 8ra bitartean luzatutako galdera-sortaren emaitzak. Jasotzen duen informazioa gazteek Instagramen sortzeko eta erabiltzeko dituzten ohiturei buruzkoa da. Inkesta honen emaitzak ustiatzerakoan, 858 erantzun baliozko hartu dira kontuan (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).

2. INSTAGRAM

Datuen arabera, inkestatu ia guztiek daukate Instagram. Zehazki, 796 pertsonak erantzun dute baiezkoa, % 92,9k.


1. Irudia – Baduzu Instagrameko konturik?



Iturria: Ikusiker Applika +

Horien artean, ia hamarretik bederatziren kontuak pribatuak dira (% 87,3).


2. Irudia – Zure kontua publikoa ala pribatua da?



Iturria: Ikusiker Applika +

Instagramen egiten diren jardueren artean, hiru nabarmentzen dira bereziki, hamarretik zazpik egunero edo ia egunero behintzat egiten dituelako: beste erabiltzaileek igotako edukiak ikusi (% 91,4k), lagunekin txateatu (% 69,6k) eta atsegin dituzten edukietan bihotzari eman (% 80,0k).

3. Irudia – Instagrameko eduki eta erabiltzaileekin interakzioak izateko modu ezberdinak zein maiztasunarekin egiten diren?




Iturria: Ikusiker Aplikka +

Instagramera edukiak igotzen dituzten pertsonen artean, gehienek galerian gordeta dituzten edukiak igotzen dituzte (% 40,1ek), eta segidan, oso antzeko balioetan gelditzen

dira hiru aukera: aurretiaz pentsatutako edukiak sortu eta igotzen dituzte % 17,8k, momentuan edukiak bururatu, sortu eta igotzen ditu % 17,7k eta momentuan bizitzen ari dena edo gertatzen ari zaiona igotzen du % 16,4k. Kasu honetan, beste erabiltzaileek sortutako edukiak konpartitzeko ohitura nahiko baxua da.


4. Irudia – Adierazi Instagramera igotzen dituzun edukiak nola sortzen dituzun NAGUSIKI:



Iturria: Ikusiker Applika +

Instagramera igotzea gustuko den edukien artean elementu zentrala norbera duten argazki eta bideoak dira aipatuenak, sortzaileen % 41,0k aukeratuta, eta segidan datoz egunerokoan pasatzen zaizkien gauzen edukiak (% 27,4k hautatuta) eta argazki artistiko eta estetikoak (% 19,9k hautatuta).

5. Irudia – Zeintzuk dira Instagramera igotzea gogokoen dituzun argazki, bideo eta edukiak??




Iturria: Ikusiker Applika +

Hizkuntzari dagokionez, % 41,1ek beti gazteleraz sortzen dituzte edukiak eta % 30,2k gazteleraz euskaraz baino gehiago. Segidan, baina, euskaraz agertzen da: euskaraz eta gazteleraz antzeko sortzen dutenak % 9,4 dira, eta euskaraz gehiago sortzen dutenak,

guztira, % 15,3 (% 8,0k euskaraz gehiago gazteleraz baino eta % 7,4k beti euskaraz). Beste hizkuntzaren bat erabili ohi dutenak % 4,0 dira.

6. Irudia – Hizkuntza aldetik, ze toki hartzen du euskarak Instagramen sortzen dituzun edukietan?



Iturria: Ikusiker Applika +

Nola aipatu txosten hau:

NOR Ikerketa Taldea (2021). "Sortzaileak: Instagram". Ikusiker Unibertsitatea Panelaren 23. Txostena. 2021eko maiatza. Applika Ikerketa-proiektua (US17/40). UPV/EHU. <http://www.ikusiker.eus>